

HITZAURREA

Aitxus Iñarra irakaskideak **Hilketa Azkue eta Barandiaranen ahozko ipuin eta ele zaharretan** bilduma prestatu du, ikerketa zehatz bat erantsiz. Eta nik neure kabuzko eritzia ematea eskatu dit.

Alor horretan ni batere jakituna ez izanik, nire lerro hauek ez dira, eta ezin izan litezke inolaz ere, aburu teknikoak. Ongi dakit, jakin, Aitxusek ez duela nigandik horrelakorik espero.

Ipuinak berak, eta A. Iñarraren iruzkinak irakurrita, orrialde horiek jakintza esparrukoa ez den bati zer iradokitzen dion azaltzea izango da "nire apurra".

Arakistainen **Tradiciones Vasco-Cántabras** hura irakurri nuen urteak, ondikotz, urrun gelditu zaizkit. Geroztik berrogei bat urte, are gehiago ere, ez baitira alferrik joan

Baina Arakistainek aurkezten eta sendi-erazten zuen misterio-kutsu hura, betirako gelditu zen nigan iltzaturik.

Askoz ere beranduago irakurri nituen Bizente Arana, eta Navarro Villoslada, eta Arturo Kanpionen **Narrazioak**... Etxaideren **Alos Torrea**, handik urte gutxitara, euskaraz zenez... nekez!

Eta are beranduago, deserri aldian, eta frantsesez, Levy Bruhlen teoriak: *La mentalité archaïque* eta Jungen *L'inconscient collectif*... Dena zitzaidan erakargarri.

Gero bizieraren zurrunbiloak harrapatu ninduen. Eta gaztetango irakurketa haiek zokoraturik gelditu ziren nire barne-zolan.

Orain, Aitxusen orrialdeak irakurreran, jauzi egin bide dut neure buruan barrena.

Antzinetetik hamaika kondaira zaharretan gorpuzturik, gugaino iritsi den mezu ilun, nahasi eta sakon horretan, ideia garbietatik at datzan mundu galdua ez bide dugu horren **galdurik**; ahantzirik badago ere. Berriro ere ahots harrigarri eta arkaiko hori **gurea** dela iruditzen zait.

Horregatik bestegatik ez balitz ere, A. Inarraren irakurketa balio luke.

Ordenadoreen eta Boeingen haro honetan, mespretxuz begiratu ohi dugu ipuin zaharretako mundu hori. Baina negute bete eta hotean sutondoan mamitzen ziren arta-zuriketak eta ipuin-kondaketak, aurki urruti-min etsiaz gogoratuko ez ditugun zalantzan nago.

Antzinetetik zetorkigun ahots hura, Azkue eta Barandiaran apaiz jakintsuen bildumetan ahitu ote den iruditzen zaigu.

Eta galera, edo etendura hori, "aurrerapena" dela sinesten lanak ditugu. Gero eta handiagoak.

Berreskurapen lan horretan, laguntza galanta eman diezaguke Aitxus Inarraren ikerlanak.

Ipuin-sailaren azterketan barrena, esana dudanez, ez naiz abiatuko. Bestek egin dezake hori nik baino hobeki.

Gauza batzuk agertzen dira nabarmen, hala ere.

Oso garbi ikusten da, adibidez, Euskal Herri zaharra oso matxista izan dela (aspaldiko gizarte hura bakarrik?). Gizasemea ageri da gailen arlo guztietan. Baita hilketarakoan ere.

Oso garbi ere, bestetan ere esan izan denez, gure arbasoen jainkogabetasuna. Haientzat ere, zerua ("ortzea" esatea hobe, A. Inarrak azpimarratzen digunez) "hutsik zegoen". "Santuz" eta "dohatsuz" betetako "zerua" (hitzak berak erakusten duenez), geroago etorri zen. Baina ipuinen azterketak aisa erakusten du kristau geruza horren axala.

Oso interesgarria, eta gaurkotasunez mukurru, sorginek pairatu zuten **satanizazioa**. Aski zen mende haietan pertsona bat sorgina zela hedatzea, froga zehatzik erantsi gabe ere, pertsona horri pairamenik larrienak sofri erazteko. Gaurko euskal gizartean gertatzen den bezalaxe. (Eta zozoa ez den irakurleak ongi daki zertaz ari naizen).

Ekarpen interesgarria, hitz batez, euskal gizarte zaharraren azterketaren baranoan. Euskaltzale guztiok zoriontzen dugu gaur Aitxus Inarra lankidea, beraz. Besterik eskainiko digun esperantzan.

Jose Luis Alvarez Enparantza. "Txillardegi"

Amasa, 1994ko Azaroan